



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urriaren 14a

109. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baliabideen eta neurri urgenteen sorta presta dezan, zaharren ongizate emozionalari, psikologikoari eta sozialari dagokienez COVID-19a izaten ari den ondorio negatiboak arintzeko eta prebenitzeko. Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztu du (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da albait lasterren egin ditzan egin beharreko kontratazioak eta plantilla-handitzeak, administrazio zentralaren aitzoneko izapideetako atzerapen larriak eta itxarote-zerrendak konpontzeko. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat abiaraz dezan, helduen artean hizkuntzen ezagutzaren akreditazioa sustatzeko. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen has ditzan Nafarroako Ubidearen 2. fasea eraikitzeko izapideak. José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da presoei zigorrak gizarte- eta familia-loturak dituzten lekuetatik hurbil betetzea ahalbidetuko dien espetxe-politika bat aplikatu dezan. Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sintoma edo zantzu arinak dituzten pertsonen jarraipenerako eta tratamendurako jarduketako protokolo adostuak taxutu eta ezar ditzan. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (7. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baliabideen eta neurri urgenteen sorta presta dezan, zaharren ongizate emozionalari, psikologikoari eta sozialari dagokienez COVID-19a izaten ari den ondorio negatiboak arintzeko eta prebenitzeko.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita baliabideen eta neurri urgenteen sorta presta dezan, zaharren ongizate emozionalari, psikologikoari eta sozialari dagokienez COVID-19a izaten ari den ondorio negatiboak arintzeko eta prebenitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzera, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Une honetan, konfinamendurik ez badago ere, COVID-19a gure artean dabil gizartean. Hain da erraz kutsatzen non harekin bizitzen ikasi behar baitugu eta errealitate berrira egokitze beharrik baikaude. Horrek ekarri du, besteak beste, ohiturak aldatu behar izatea, harremanak izateko hainbat molde aldatzea eta segurtasun nahiz prebentzio neurriak hartzea eguneroko jardueratan.

Argi dago pandemia honek ez gaituela denak berdin harrapatu, sektorerik ahulenak izan direlako kaltetuenak. Osasunaren Mundu Erakundeak ez du errealitate hori saihestu; izan ere, gomendioak eman ditu aldiro pandemia nahiz gizarteko sektorerik ahulenek pairatu dituzten ondorio negatiboak geratzeko; esate baterako, emakumeek, gazteek eta zaharrek. Azken horien kasuan, OMEko Europarako zuzendari Hans Henri P. Klugek honako gomendio hau egin zien Europako herrialdeei: “Guztion ardura da bakarrik bizi diren zeharrei laguntzea eta babestea. Gobernuei nahiz agintariei gogorarazi nahi diet erkidego guztiek jaso behar dutela laguntza, zaharrek behar duten guztia edukiko dutela bermatzeko esku-hartzeak egiteko. Sasoi honetan, denei eman behar zaie errespetuzko tratu duin bat. Ezin dugu inor atzean utzi”.

Administraziook ezin dugu albo batera utzi zaharrek konfinamenduan zehar bizi izan duten errealitatea, ezta une honetan bizi dutena ere.

Zinez, COVID-19ak zaharrengan duen eragina askoz ere larriagoa da, eta, horrenbestez, segurtasun eta prebentzio neurri gehiago hartu behar dituzte kutsatzetik babesteko; neurri horiek, zoritxarrez, gurean luzaz egoteko heldu dira. Gogoan izan behar dugu ezen ohitura-aldaketa horiek harreman sozialak nabarmen murriztea eragiten ari direla eta eraginen dutela epe luzera; hartara, kasu askotan isolamendu soziala eta bakardadea gertatzen da.

Azterlan ugari ohartarazten dutenez, bakardadeak eta isolamendu sozialak eragin negatiboak daukate pertsona guztiengan, baina zaharrengan daukaten eragina askoz ere nabarmenagoa eta kaltegarriagoa da. Bakardadean bizi diren zaharrek daukaten arriskuen artean daude antsietatea, depresioa, disfuntzio kognitiboa eta bihotzeko gaitzak areagotzea. Arrisku horiek, jaki-

na, eragina izanen dute pertsona horien osasun integralean.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du baliabideen eta neurri urgenteen sorta presta dezan, zaharren ongizate emozionalari, psikologikoari eta sozialari dagokienez COVID-19a izaten ari den ondorio negatiboak arintzeko eta prebenitzeko. Neurri horien artean proposatzen dugu aisialdiko jarduera seguruen egitarau bereziak eta COVID-19aren albo-ondo-

rioak minimizatzeko laguntza psikologikoko programak antola daitezela, prebentzio neurriak eta gida informatiboak jendarteratu daitezela pandemia-egoeran osasun integrala sustatzeko eta antsietateari eta isolamendu sozialari aurre egin ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du albait azkarren deitu dezan Adinekoen Kontseilua, proposatutako neurriak elkarrekin lantzeko.

Iruñean, 2020ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da albait lasterren egin ditzan egin beharreko kontratazioak eta plantilla-handitzeak, administrazio zentralaren aitzineko izapideetako atzerapen larriak eta itxarote-zerrendak konpontzeko.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita albait lasterren egin ditzan egin beharreko kontratazioak eta plantilla-handitzeak, administrazio zentralaren aitzineko izapideetako atzerapen larriak eta itxarote-zerrendak konpontzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoaren eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publi-

koko eta Barneko batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz bizi den osasun krisia abiarazi zenez geroztik, areagotu egin dira lehenagotik pairatzen ari ziren zenbait arazo. Estatuko Administrazio Publikoaren kasuan, kolapsatu egin dira funtsezko zenbait izapide egiteko sistemak; esate baterako, nortasun agiria eta pasaporte berritzea, erretiro edo amatasunagatiko prestazioetarako izapideak edo enplegu erregulazioko espedienteen izapidea eta kudeaketa.

Zenbait sindikatuk salatu dute larria dela langile falta. COVID-19a heldu zenetik egindako kontratazioak ez dira inondik ere iristen hainbeste igo den lan-kargari aurre egiteko, eta itxarote-zerrendak hilabeteetakoak dira kasu askotan.

Kolapso administratibo horietatik heldu diren arazo batzuk –esaterako, nortasun agiri iraungiak berritzea– erraz asko konpon daitezke aldi baterako besterik gabe luzatuta. Beste batzuk, aldiz, ezin dira arestiko hori bezala aldi baterako konpondu –esaterako, langabeziaren edo erretiroaren prestazioak izapidetzea eta kudeatzea–; hori dela-eta, kalte handia egin dakieke ukitutako pertsonari, areago kontuan hartzen bada krisi ekonomikoa ere bizi ari garela.

Egia da izapide horietako batzuk sistema eta prozedura telematikoak paratuz indartu direla, baina funtsezko izapideak izateagatik hain zuzen ere, Administrazioak indartu egin behar ditu bere egitura eta bere baliabideak, herritarrei arreta egokia ematea lortzeko, baita modu presentzian ere. Izapide horietako batzuk modu presentzian egin behar dira nahitaez, eta beharrezkoa da itxaronaldi luzeak eta, horrenbestez, herritarrengan sor ditzaketen kalteak, amaiaraztea.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du al bait lasterren egin ditzan egin beharreko kontratazioak eta plantilla-handitzeak, Administrazio zentzualan egin beharreko funtsezko izapideak egitean –esaterako, erretiro-pentsioak izapidetzean, langabezia-prestazioak aitortzean edo nortasun agiria berritzean– herritarrek pairatzen dituzten atzerapen eta itzarote-zerrenda larriak konpontzeko.

Iruñean, 2020ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat abiaraz dezan, helduen artean hizkuntzen ezagutzaren akreditazioa sustatzeko.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita plan bat abiaraz dezan, helduen artean hizkuntzen ezagutzaren akreditazioa sustatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatzeko.

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuo Hezkuntza Departamentua premiatzen baita plan bat abiaraz dezan, helduen artean hizkuntzen ezagutzaren akreditazioa sustatzeko.

Bizi-baldintzei eta Gizarteari buruzko 2018ko Inkestak emandako datuek erakutsi zuten Nafarroako

biztanleen artean pertsona-portzentaje handi bat dagoela ingelesez, frantsesez eta euskaraz ongi ala nahiko ongi hitz egiten duela dioena. Zehazki, % 10,9k adierazi zuen ingelesez ongi hitz egiten duela, eta % 10,8k nahiko ongi.

Frantsesez, berriz, % 4,6k zioen ongi hitz egiten duela, eta % 4,5ek nahiko ongi. Azkenik, % 11,4k zioen euskaraz ongi hitz egiten duela, eta % 2,8k nahiko ongi. Portzentaje horiei gehitu behar zaie inkesta horren xede ez ziren beste hizkuntza batzuk ongi ala nahiko ongi hitz egiten duen jendea: alemana, arabiera, errumaniera, txinera, eta abar.

Halere, askoz ere txikiagoa da ezagutzen dituen hizkuntzen maila altua edo ertaina akreditatzen duen titulazioen bat daukala dioten pertsonen portzentajea. Zehazki, B1etik gorako maila akreditatzen dute % 12,2k ingelesaren kasuan, % 2,8k frantsesarenean eta % 6,3k euskararenean. Ez dago gainerako hizkuntzen akreditazio-mailari buruzko daturik, ezta gaztelaniaren ezagutza-mailaren akreditazioa daukaten etorkinen kopuruari buruzkorik ere.

Argi dago nabarmen hobetuko liratekeela euskara edo atzerriko beste hizkuntza bat ongi ezagutzen duten baina ezagutza hori frogatzeko ziurtagiririk ez duten pertsonen lan-aukerak, baldin eta akreditazioen bat edukiko balute.

Beste horrenbeste gertatuko litzateke kanpotik –gaztelaniaz hitz egiten ez den herrialdeetatik– etorritako egoiliarren kasuan, baldin eta gaztelania-mailaren ziurtagiriren bat edukiko balute.

Halaber, Nafarroako gizarte osoak ikusiko luke hobetzen bere giza kapitalaren kalitatea eta lehia-kortasuna, baldin eta beren hizkuntz gaitasuna akreditatzea lortzen duen pertsona kopuru adierazgarri bat lortuko balitz.

Horretarako, plan bat taxutu beharko litzateke helduen artean sustatze aldera akreditazioak lortzea Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuarekin bat, Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialaren, Hezkuntza Departamentuaren eta, beharrezkoa denean, atzerriko beste organismo batzuen bidez.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du plan bat abiaraz dezan helduen artean atzerriko hizkuntzen eta euskararen ezagutzaren akreditazioa sustatzeko, eta etorkinen artean, berriz, gaztelaniarena, Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialaren, Hezkuntza Departamentuaren eta atzerriko organismo batzuen bidez.

Iruñean, 2020ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da lehenbailehen has ditzan Nafarroako Ubidearen 2. fasea eraikitzeko izapideak.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita lehenbailehen has ditzan Nafarroako Ubidearen 2. fasea eraikitzeko izapideak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Erriberara kalitatezko ura eramateko azpiegitura beharrezkoa da Nafarroako Ubidea. Proiektu estrategikoa da Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-orekari, aukera berdintasunari eta garapen jasangarriari begira.

Legegintzaldi hau hasi zenetik jada urtebete igaro da; hortaz, zeharo justifikatuta dago Nafarroako Gobernuak behin betikoz ebatz dezan zer alternatiba uste duen dela egokiena proiektu hau garatzeko.

Ura ondasun preziatua da egunero; gauzak horrela, ubideak milaka nafarri kalitatezko ura bermatuko dio edateko, eta, horretaz gain, enpresak jartzeko eta milaka hektarearen ureztapena sendotzeko balioko du.

Horregatik, Nafarroako Erriberak ezin du gehiago itxaroten jarraitu, bizi-kalitatea, enplegua eta etorkizuna bermatuko diona jasotzeko. Ubideak lurralde-oreka, aberastasuna eta enplegua sortzen ditu, eta garapen eta antolamendu elementu bat da.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du lehenbailehen has ditzan Nafarroako Ubidearen 2. fasea eraikitzeko izapideak, halako moduan non berehala definituko baita alternatiba bat Erriberara 21 hm³ iristea bermatuko duena eta obra fase bakar batean egiten baita –hau da, dekalajerik gabe–, lur azpiko bi hodirekin, eta aukera emanen baitu Nafarroako Erriberak ezarrita dauzkan 21.522 hektareak ureztatzeko.

Iruñean, 2020ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da presoer zigorrak gizarte- eta familia-loturak dituzten lekuetatik hurbil betetzea ahalbidetuko dien espetxe-politika bat aplikatu dezan.

GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita presoer zigorrak gizarte- eta familia-loturak dituzten lekuetatik hurbil betetzea ahalbidetuko dien espetxe-politika bat aplikatu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezteko dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak behin baino gehiagotan eman du bere iritzia sustraiak dituzten lekuetatik urrun dauden nafar presoer egoerari buruz, bai eta haiei bisitan joateko beren ahaide hurkoek egin behar duten ahaleginari buruz ere. Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorrek ezartzen du kondenatuen deserrotzea ekiditen saiatuko dela, bai eta kondenatuen birgizarteratzea bultzatzen ere.

COVID-19aren eraginez bizi dugun pandemiaren testuinguru honetan, eta osasun publikoa egokiro babesteko xedez, are arrazoizkoagoa da populazioarentzako arrisku oro ekiditea, nola baitira presoer familiartekoei eta lagunek egin behar dituzten joan-etorri luze horiek.

Iruñeko espetxeak, zeinak mila pertsona inguru hartzeko tokia baitauka, hirurehun preso baino gutxiago dauzka gaur egun. Gure ustez, beraz, teknikoki Iruñeko espetxean egon litezke, borondatez kotasanaren printzipioa betetzeko, zenbait iturriren arabera jatorria, ohiko bizilekua edo familia-ingurunea Nafarroan duten berrehun inguru presoak.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezteko dugu:

– Nafarroako Parlamentuak, Espetxeei buruzko Lege Orokorrean ezarritako birgizarteratze printzipioa eta COVID-19aren pandemiak eragindako testuingurua kontuan hartuz, Espainiako Gobernua premiatzen du hala nahi duten presoer zigorrak gizarte- eta familia-loturak dituzten lekuetatik hurbil betetzea ahalbidetuko dien espetxe-politika bat aplikatu dezan.

– Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du plan bat taxutu dezan, jatorria, ohiko bizilekua edo familia-ingurunea Nafarroan duten preso guztiak, borondatez kotasanaren printzipioa betetzeko, Iruñeko espetxeak hartu ahal izateko eskaintzen dituen aukera guztiak aztertu ahal izateko.

Iruñean, 2020ko urriaren 8an

Foru parlamentariak: Jabi Arakama Urtiaga, Bakartxo Ruiz Jaso, Ainhoa Aznárez Igarza eta Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sintoma edo zantzu arinak dituzten pertsonen jarraipenerako eta tratamendurako jarduketa-protokolo adostuak taxutu eta ezar ditzan.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita sintoma edo zantzu arinak dituzten pertsonen jarraipenerako eta tratamendurako jarduketa-protokolo adostuak taxutu eta ezar ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko:

COVID-19aren pandemiak eragindako osasun krisia dela-eta osasun sistemak azkar egokitu behar izan dira, ustez COVID-19a dutenei behar bezala eta kalitatez arreta emateko eta aldi berean COVIDik gabeko jendearendako osasun arreta mantentzeko.

Egoera horrek tentsioa ekarri du osasun sistemetara. Eta kontuan hartu behar ditugu krisi honen osasun kudeaketak jendearen osasunean ekar dezakeen inpaktua.

Nafarroan egoera nahasiak jasan ditugu, eta kexa ugari egon da osasun arloko profesionalen zein herritarren aldetik, arazoak izan direlako oinarrizko osasun laguntzako zentroetarako irisgarritasunean. Bertako profesionalak ahalegin itzela ari dira egiten oraindik ere, nekeari, gaitar-ga asistentzialari, eta ordezkoen zein lanpostu hutsen betetzearen ezari aurre eginez.

Inguruabar horiekin, inoiz baino beharrezkoagoa da erkidegoko osasun arloko profesional guztiak kontuan hartzea.

Nafarroak farmazia arretako eredu berariazkoa du, 601 farmazia-bulego dituena, Nafarroa osoan zehar. Farmaziako profesionalak Nafarroako herritarrei balio handia duen gertuko arreta eskaintzen diete, profesionaltasun, gaitasun eta jakintza handiarekin, osasun sistema publikoarekin elkarlanean aritzeko moduan sintoma eta zantzu arinen jarraipena egiterakoan, protokolo adostuekin eta arreta berbera egonda edozein dela ere sarbidea, osasun zentroa edo farmazia-bulegoa.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sintoma edo zantzu arinak dituzten pertsonen jarraipenerako eta tratamendurako jarduketa-protokolo adostuak taxutu eta ezar ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du informazio- eta komunikazio-sistemak osa ditzan, ahalbidetze aldera informazioa partekatzea eta farmazia-bulegoen eta osasun sistema publikoaren arteko kolaboraziozko arreta hobetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

